



"Atsedeen hartzeko aprobetxatuko dut udako partiduak hasi aurretik"

Aitor Elordik handia egin du. Joan zen domekan buruz buruko txapela irabazi zuen Jokin Altunari irabazita. Mallabian harrera hunkigarria egin zioten herrikide eta zaleek. Pilotari mallabitarren azken urteko garapena itzela izan da eta binakako txapela eta buruz burukoa lortuta ginga ipini dio denboraldiari. Orain, atsedeen hartzeko egun batzuk izango ditu. • 20



Mankomunitatearen agintea EH Bilduren esku geratu daiteke

Durangaldea • Ekainaren 17ko udaletako kargu hartzeekin panorama politiko berri bat izango da Durangaldean. Horrek Mankomunitatean ere izango du eragina. Lehenengo estimazioen arabera, Mankomunitatea EH Bilduren esku geratu daiteke. Bestalde, Izurtzak ordezkari bakarra izango du bertan. • 3

UDA Gehigarria

Basajaun proba, hirukote honen udako erronka

Berriz • Ander Morairak, Kepa Astorkiak eta Jon Urbietak bizikleta dute afizio. Azken urteotan hainbat bidaia egin dute udan bizikletan. Aurtengo udan, Basajaun proban parte hartuko dute. • 16



Domekan sega-sail txapelketa Elorrión

Elorrio • Bigarren urtez jarraian, Elorrioko Gazeta Auzoak binakako sega-sail txapelketa hartuko du domekan. Iazko irabazleek parte hartuko dute, baina ez dira elkarregaz arituko. Luixa Uzkudun Jugatx Agirregaz arituko da, eta Izadi Arrospide Ainhoa Mazkianegaz. • 21

Euskal Herri osotik ailegaturiko 51 emakume sortzailek azoka egingo dute, domekan, Durangon

'Nomadak gaitun!' azoka ibiltaria Durangoko merkatu plazan egingo dute, 11:00etatik 17:00etara artean

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango *Nomadak gaitun!* azoka ibiltariaren geltoki izango da domekan. Euskal Herri osoko luze zabaletik ailegaturiko emakume sortzaile eta ekoizleak merkatu plazan elkartuko dira, 11:00etatik 17:00etara bitartean. 51 postu egongo dira, eta horietan eskuz landuriko arropak, ukenduak,

xaboiak, jostailuak, bitxiak, ogiak, kontserbak, gazta edo jogurtak eskuratu ahal izango dira. Azoka ibiltari honen atzean Dinagu kolektiboa dago, Euskal Herriko emakume sortzaileen kolektiboa. Honela deskribatu dute egitasmoaren helburua: "Azoka ibiltari honek hango eta hemengo sortzaile ezberdinak plaza berean elkartzea

du helburu, eta elkarren zaintza eta goxotasunez, lanbide honen duintasuna erdigunean ipini eta herritarrei kontsumo alternatibo baterako bidea erakustea".

Durangoko merkatu plazan ez dira bakarrik egongo. Soloko nekazaritza elkarteko emakume sortzaileak ere bertan izango dira, eta Amillenako kideek pintxoak prestatuko dituzte. *Nomadak gaitun!* azoka Durangoko Euskal Jaiei zati da. Azoka honetaz gainera, beste hainbat ekitaldi egongo da asteburuan. Azoka ibiltariak Azpeitian ekin zion bere zirkuu ibiltariari, 2021eko udan. Gernika (Bizkaia), Donostia (Gipuzkoa), Laudio (Araba), Iruñea (Nafarroa), Oñati (Gipuzkoa), Sara (Lapurdi) eta Tolosa (Gipuzkoa) igaro ditu. Durangokoa izango da azoka ibiltariak eskualdean egingo duen lehenengo geldialdia.



Azoka ibiltariaren aurreko edizio bat.

Carlos Garciak Pedrosari eskaini dio PPk Durangon lortu duen ordezkaritza

Asteon 23 urte bete dira ETak Jesus Mari Pedrosa zinegotzi durangarra hil zuenetik



PPko ordezkariak Mari Carmen Hernández Pedrosaren alargunagaz Durangoko hilerrian.

DURANGO • E.H.

PPko ordezkariak Durangoko hilerrian izan ziren astelehenean, Jesus Mari Pedrosa alderdikideari lore eskaintza egiten. Carlos Garciak, datorren legegintzaldian Durangoko PPko ordezkaria izango denak, "Pedrosari, haren familiari eta ETaren terrorismoak Durangon hildako 13 kideei" eskaini zien udal hauteskundeetan lorturiko ordezkaritza. Carlos Iturgaizek, Euskadiko PPko presidentek, etortzekoak diren udal eraketei egin zien erreferentzia. "Duintasun demokratikoagaitik", ahal duten lekuetan EH Bildu agintetik kenduko dutela adierazi zuen. Lore eskaintzan, Mari Carmen Hernández Pedrosaren alarguna eta familiako kideak ere egon ziren.

161 argazki Bide Indarkeriari Stop elkartearen lehiaketan

Sari nagusia Kike Balenzategui nafarrak eskuratu du. Bere irudiagaz gainera, 11 argazki ere saritu dituzte

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Iazko harrera onak animatuta, aurten ere *Ikusi eta Ikasi* argazki lehiaketa antolatu du Bide Indarkeriari Stop elkartek. Aurten 161 argazki aurkeztu dituzte eta eurretari hamabi saritu zituzten astelehenean Durangoko Kurutzesantu Museoa egindako ekitaldian. Argazki irabazlea Kike Balenzategui-rena (Barañain, Nafarroa) izan zen. Sariak emateko ekitaldian, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Aldundietako, Durangoko

Udaleko eta Lagun Aro aseguru etxeko ordezkariak parte hartu zuten.

Erakusketa ibiltaria

Argazkirik onenekin erakusketa ibiltari bat antolatu dute eta herririk herri ibiliko da hurrengo hileetan. Lehenengo geltokia Durango izango da. Erakusketa martitzenean zabaldu zuten eta ekainaren 19ra arte egongo da bertan, Landako Kiroldegian. Ondoren, Artziniegara (Araba) eramango dute.



Kike Balenzategui argazki irabazleagaz.

Zabalarra ikastetxeko kideek bideoklipa aurkeztu dute

Bideoa Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoekin egin dute. Abestiaren letra Joseba Sarrionandiak idatzi du

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Zabalarra eskolako kideek Pirritxegaz, Porrotxegaz eta Marimototsegaz grabaturiko bideoklipa estreinatu dute. Abestiaren errepika edo leloak honako hau dio: "Zabalarra zapaburuak hasita kantuan, zapo-herria osorik dago ezin isilduan". Zabalarra eskola txikia eta familia handia

direla diote, zapaburuz beterikoa. Hainbeste, Porrotxi berari ere zapoaren koloreaz berdetu baitzaio ohiko sudur gorria. Bideoklipa Durangoko Bideografik ekoiztetxeak egin du. Abestia Xabier Zabala konpositoreak sortu du eta Joseba Sarrionandia idazle iurretarrak jantzi dizkio hitzak. Koreografiak Izaskun Forkadak egin ditu.



Zabalarra grabatu zuten bideoklipa.

Amankomunazgoa EH Bilduren esku geratu daiteke

Koalizio subiranistak 15 eserleku izango lituzke, eta EAJk 14. Jose Luis Navaroren Abadiño Independent Berriak taldeak eta Garaiko Herriko Taldeak eserleku bana izango lukete. Bestalde, Izurtzako Udalak eserleku bat gutxiago dauka

hori aldatu egin da. Hemendik aurrera, Izurtzak ordezkari bakarra izango du Mankomunitatean. Herrian errolaturiko biztanleen kopurua jaitsi izanak beste eragin bat ere izan du maiatzaren 28ko hauteskundeetan. Orain arte zazpi zinegotzik osatu dute udalbatza. Bada, orain bost zinegotzi izango dituzte.

Izurtzako udalbatzak ordezkari bi izan ditu Mankomunitatean eta orain bat izango du

Aurreko hauteskundeetako sistema alde batera utzita, udal hauteskundeetan zerrenda irekiak izan zituzten. EH Bilduk bost hautagai aurkeztu zituen, eta EAJk beste bost. Hamarreko zerrenda horretatik izurtzarrek lau pertsona aukeratu behar izan zituzten. Botorik gehien jaso zuten lau hautagaiak EH Bildukoak izan ziren: Oihane Irastorza, Mikel Martinez, Iker Ballarin eta Nerea Zarrabeitia. Bosgarrena EAJko Juanjo Garate izan zen.

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Maiatzaren 28ko hauteskundeek panorama politiko berri bat ekarri dute Durangaldera. Udalen eraketa ekainaren 17an egingo dute. Egun horretan jakingo da Durangaldeko udaletan nor egongo den agintean. Horren ondoren, udalbatza berriek Mankomunitatean izango dituzten ordezkariak hautatzeko osoko bilkura egingo dute. Hortik aurrera, Mankomunitatea ere martxan ipiniko litzateke. Lehenengo estimazioen arabera, EH Bilduk 15 eserleku izango lituzke, eta EAJk 14. Jose Luis Navaroren Abadiño Independent Berriak taldeak eta Garaiko Herriko Taldeak eserleku bana izango lukete. Beraz, posible da Mankomunitatea EH Bilduren esku geratzea.

Izurtzaren kasua

Izurtzako udalbatzak orain arte ordezkari bi izan ditu Mankomunitatean. Baina orain 250 biztanletik beherako herria denez, hori guzti

Mankomunitateko osoko bilkura, Astolan.

El Cojo eta Berezi tabernak, pintxo lehiaketako irabazle

Zerbitzaririk onenaren saria Singing Munch tabernako Goizalde Perezek lortu du. Lehiaketaren X. edizioa izan da



Pintxo lehiaketako irabazleak saria jasotzen.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Joan den domekan Zornotzako Jan Alai pintxo lehiaketako irabazleak saritu zituzten. Aurtengo irabazleak El Cojo jatetxea eta Berezi taberna izan dira. Lehenengoak epaimahaiaren saria jaso du, Masita pintxoagaitik. 1.000 euro, txapela eta garaikurra lortu ditu. Bigarrenak bezeroen pintxorik gustukoenaren saria jaso du. Krums moka-duari eskerrak. 1.000 euro, txapela eta garaikurra lortu dituzte eurek ere. Bestalde, zerbitzaririk profesionalenaren saria Singing Munch tabernako Goizalde Pérez Esturik lortu du: 250 euro eta garaikurra. Pintxo lehiaketaren 10. edizioa eguenetik domekara jokatu zen. 16 tabernak parte hartu zuten.

Tortilla txapelketa, disko festa, puzgarriak eta rocka San Antonioko jaietan

Zornotzako auzoan gaurtik martitzenera egingo dira jaiak

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Aurten, San Antonio auzoko gazte talde batek erreleboa hartuko dio urte luzez jaiak antolatzen ibilitako taldeari. "Iaz, jaiak antolatzeaz arduratzen zirenek esan zuten utzi egingo zutela, ez zutela jaiak antolatzen gehiago jarraituko. Hori dela eta, aurten hamar bat gazte batu gara jaiak antolatzeko", azaldu du Zigor Gerediaga auzotarrak. "Egun politik izaten dira. Za-

patuko auzo bazkarira, adibidez, lehen auzoan bizi zen baina gaur egun kanpoan bizi den jendea etortzen da. Aspaldi ikusi bako auzotar asko elkartzen dira jai hauetan", azaldu du Gerediagak. Tortilla txapelketa, umeentzako puzgarriak, disko festa eta rock kontzertuak batu dituzte egitarauan. Programa osoa anboto.org atarian kontsultatu daiteke.

San Antonio 2023

Nekazaritza eta abeltzaintza merkatua, txosna gunea, kaleko animazioa eta herri kirolak.
(Ekainak 18, Errepetizino Domeka)

Ekainak 13
ABADIÑO – URKIOLA
San Antonio azoka

www.abadiño.org



bbkE



Abadiño
Elizateko Udala

Indalecio Ojanguren

ZALDIBAR • A. M.

Zaldibarko igogailu berria joan zen egunean ipini zuten martxan, eta handik gutxira itxi egin behar izan zuten, arazo teknikoak zirela eta. Jose Luis Maiztegi jarduneko alkateak azaldu duenez, udala arazoaren jarraipena egiten dabil igogailua eraiki duen enpresagaz.

Proiektuagaz ados egon ez diren herritarrek ere egon dira, eta inguruetako bizilagunetarikoz batzuek protestak egin zituzten. Sinadura bilketa ere ipini zuten martxan, proiektua eraikitzen hasi orduko. Proiektuak 355.860 euroko aurrekontua izan du eta 230.000 euro inguru Jauralaritzak eta Aldundiak ipini dituzte. Maiztegi pozik agertu da proiektua martxan ipini izanaz. "Proiektu honen bitartez, herritarrek inguruko irisgarritasuna hobetzeko egindako erreklamazio historiko bati erantzun diogu eta legegintzaldi honetako konpromiso nagusietarikoz bat bete dugu, Zaldibarko goiko aldean bizi diren eta hemendik aurrera zentroraz azkar eta eroso mugitu ahal izango diren bizilagunen bizi kalitatea hobetzeko balioko duena", azaldu du. Igogailuak Elizondo kalea eta Kati-kena zeharbidea lotzen ditu; azken honetako zeharbidea zabaltzeko ere baliatu dituzte lanak."

Zaldibarko igogailua martxan ipini eta gutxira itxi egin behar izan dute, arazo teknikoengaitik

Azpiegitura itxita dago eta udala "egoeraren jarraipena egiten" dabilela azaldu du Jose Luis Maiztegi jarduneko alkateak



Zaldibarko igogailua.



Sorgin taberna.

Egun osoko egitarauagaz ospatuko dute Sorginen 6. urteurrena

Zaldibarko taberna ezagunak urtemuga ospatuko du zapatuan, lagun artean eta egun osoko egitarauagaz

ZALDIBAR • A. M.

Egun osoko egitarauagaz eta inguruko lagun eta bezeroekin batera seigarren urteurrena ospatuko du Zaldibarko Sorgin tabernak zapatuan, hilak 10. 12:00etan herri kirolak egingo dituzte, eta, ondoren, bertan batutakoek marmitakoa bazkalduko dute; bingoa aritzeko aukera ere egongo

da, antolatzaileen esanetan. Arratsaldean eta iluntzean, ohikoa den moduan, musika izango da protagonista; lehenengo Txaberrriaren binilo pintxadagaz, eta 21:00etan Kaparrada eta Kutrebanden kontzertuekin; talde berriak biek punk eta rock doinuak eta jarreraz beteriko kontzertua emango dute.



Martitzenean aurkeztu zituzten Elkartasun Jardunaldiak.

XVI. Kulturarteko Topaketa egingo dute domekan, ekainak 11, Berrizen

Elkartasun jardunaldiaren barruan antolatu dute Kulturarteko Topaketa; Legaño auzoan

BERRIZ • A. M.

Berriztarrek immigrazioaren inguruan sentsibilizatzeko asmoagaz, Berrizen Elkartasun Jardunaldiak eta Kulturarteko Topaketak antolatu dituzte beste behin ere. Bigarren hau antolatzen duten XVI. aldia izango da oraingoa. Hain zuzen ere, domekan egun osoko egitarauagaz egingo dute Kulturarteko Topa-

keta. 12:00etan dantzarien saioa egongo da, eta 12:30ean henna eta trentza tailerrak. 14:00etan munduko hainbat janari dastatzeko aukera egongo da, eta 17:00etan MLOP Kulturala ikuskitzuna egingo dute.

Senegal eta Maroko

Elkartasun Jaialdiko lehenengo ekitaldia martitzenean izan

zen; Senegaleko argazki, arropa eta janariekin erakusketa ipini zuten Berrizko Kultur Etxean. Gaur, beste horrenbeste egingo dute Marokokoekin. Ekitaldi biak Berrizko Emakume Migratuak elkarteak antolatu zituen, herrialde biak berriztarren artean ezagutarazteko helburuagaz. Domekako ekintzekin egitaraua biribilduko dute.

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

2023ko ekainaren 9a
21. urtea - 939. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Gremioen gida

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Zurgintza

ATERPE AROZTZA
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

 **Profesionalik onenak zure zerbitzura!**



Elorrion VII. Artisau eta Sortzaileen Azoka egingo dute domekan Eixu elkarteak antolatuta

Zazpi urtez etenik barik antolatu dute azoka. Domekan egingo duten azokan 24 artisau eta sortzaile egongo dira



Aurreko edizio bateko argazkia.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Eixu elkarteak antolatzen duen artisau eta sortzaileen azokaren zazpigarren edizioa egingo dute aurtten. Bertan, 24 sortzailek parte hartuko dute, Urarka kalean. "Mimo handiz prestaturiko azoka dugu ekainaren 11n, Urarka kalean. 24 sortzailek euren sormen lanekin eta presentziagaz beteko dute Elorrrio. Gainera, azokan bertan egingo dituzten lanak ikusi eta eskuratzeko aukera ere egongo da", azaldu dute antolatzailerak.

Hauek dira azokan parte hartuko duten artisau eta sortzaileak: Larruzko eskuak, Puouchinah, Marapilo, Jandameida, Harrikontari, Gala, Ama bitxiak,

Artizar, Lioka, Aiama, Hartara, Kenika, Dzemento, Joyas Julio, Artea Soinean, Nekart, Xaboi punpuila, Barro y Mecate, 13 Gatos, Gu Gurera, Maderarte Gepetto, Sinergias Karmicas, Em Zirrimarra eta Sualai Forja.

Bestalde, egun guztian zehar forjaketa erakustaldia egongo da azokan. Aretxabaletako Sualaik suagaz metalaren formaren eraldatze prozesua erakutsiko du.

Adierazpen eta jolaserako txokoa ere egongo da domekan Elorrion. "Eixuko azoketan umeentzako espazioak beti du lekua. Bertan, Hosi Sound Maker zuzenean musika sortzen arituko da. Bere soinu-arte esperimentalak publikoagaz partekatuko du, gorputzagaz eta objektuekin jolastuz soinuak sortuta", gaineratu dute Eixuko kideek.

Horretaz guztiaz gainera, taloak dastatzeko aukera ere izango dute azokara bertaratzen direnek.

30 artisau eta 150 abelburu egongo dira San Antonio egunean Urkiolan

Ekainaren 13an San Antonio eguna ospatuko dute Urkiolan. Domekan, ekainaren 18an, berriz, errepikapena izango da. Nekazaritza azoka eta herri kirolak egongo dira

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Datorren martitzenean, ekainak 13, San Antonio azoka ospatuko dute Urkiolan. Udaletik jakinarazi dutenez, azokan 30 bat artisau eta 150 abelburu egongo dira. Azoka 10:00etatik 15:00etara izango da eta trikitilari talde batek jai-eremua girotuko du. Bertsolariak ere egongo dira, Angel Mari Peñagarikano eta Julio Soto. San Antonio eguneko egitaraua ohiko mezekin osatuko da.

Bestalde, hilaren 18an errepikapen jaia ospatuko dute. Egun honetan ere, nekazaritzako produktuen azoka egongo da berriro. 12:45ean herri kirol erakustaldia izango da.



Iazko San Antonio eguneko argazkia.

Antzinako ogibideak ezagutzeko aukera, zapatuan, San Agustinen

Olazar auzo elkarteak antolatzen du azoka eta 11:00etan hasiko da. Emigrazioa eta industrializazioa landuko dituzte

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko San Agustin auzoko Olazar auzo elkarteak Antzinako Ogibideen Azoka antolatzen du urte birik behin. Aurtengoa, ekainak 10, zapatua, 10. edizioa izango da eta 60ko hamarkadako emigrazioa eta industrializazioa jorratuko dituzte.

Antolatzailerak azaldu duteenez, ogibideak erakusteko hain-

bat postu eta tailer egongo da San Agustinen. Hauek dira horietariko batzuk: kanpai joleak, bizikleta konpontzaileak, xaboi tailerrak, jostunak eta sagardo egileak. Sasoi hartako eskolaren errekreazioa ere egingo dute.

Ekintzak 11:00etatik hasiko dira eta txerri erre dastatzeko eta zerbait edateko aukera ere egongo da.

Ekainaren 12an zabalduko dituzte Eleizaldeko igerilekuak

Kanpoko igerilekuen abonua kiroldegian egin beharko da, bertan dagoen izen-emate orria beteta

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Eleizaldeko igerilekuak datorren astelehenean zabalduko dituzte, ekainak 12. Hiru hilabetetan, irailaren 17ra arte, Eleizalde bere zerbitzu guztiak emango ditu: igerilekuak, aldagelak, taberna; aulkia eta eguzkitakoak horretarako prestaturiko instalazioan uzteko aukera ere egongo da.

Bestalde, udaletik jakinarazi dute abonatuak gura duten guztie-

tan izango dutela bertara joateko aukera (edukiera beterik ez bada go behintzat), eta, gainera, ez dute ilaran egon beharko; lehentasuna izango dute.

Eguneko sarrerari dagokionez, 18 urtetik gorakoek 6,50 euro ordaindu beharko dituzte, eta 3tik 18 urtera artekoek eta 65 urtetik gorakoek 4,50 euro. 3 urtetik beherako haurrak doan sartu daitezke.

Asteon lanak amaituta, igerilekuak prest ekainaren 24an zabaltzeko

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Udala maiatzaren erdialdean hasi zen igerilekuak hobetzen, eta, udaletik jakinarazi dutenez, aste honetan abiatuko dituzte lanak. Euren esanetan, igerilekuak ekainaren 24rako egongo dira prest igerileku denboraldiari hasiera emateko. Lanek

Atxondoko igerilekuak asteleheneetik domekara egongo dira zabalik, 11:00etatik 20:00etara

47.000 euroko aurrekontua izan dute. Hauetxek dira igerilekuan egin dituzten lanak, besteak beste: lurzorua berritu, labaingarria ez den baldosa berezi bat ipini eta jolas-igerilekuko ontziaren baldosa aldatu sakonerarik txikieneko aldean.

Igerileku denboraldiari, beraz, ekainaren 24an emango diote hasiera, eta irailaren 4an amaiera. Asteleheneetik domekara egongo dira zabalik igerilekuak, 11:00etatik 20:00etara.



Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

 **anboto**
kide

Mocker's-en eta Nevadah-ren kontzertuak, eta Goñiren pilota partidua ikusgai bihar, Mañariko jaialdian

Kafraga kultur elkarte berriak, hainbat eragileren laguntzagaz, Albokan'Rolla jaialdia antolatu du zapatu honetarako

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañarian sortu berri den Kafraga kultur elkarteak Albokan'Rolla jaialdia antolatu du zapatu honetarako. Udalaren, pilota eskolaren eta beste eragile batzuen laguntza izango du.

Eguna kalejira bategaz hasiko dute eta jaiko osagai bat 12:00etan hasiko den pilota partidu berezia da. Profesional izandako pilotari bi daude tartean: Mikel Goñi eta Iñigo Pascual. Goñik Azanzagaz jokatu du, eta Pascualek Urmenetaz osatuko du bikotea. Partiduak beste berezitasun bat ere badu: Unai Gaztelumendi eta Oihana Bartra bertsolariak izango dituzte botilero, eta bertsotan arituko dira partiduko hainbat unetan.

Albokan'Rolla eguneko beste osagai inportante bat kontzertuak dira: Mocker's, Nevadah eta The Riff Truckers taldeen zuzenekoak ikusteko aukera egongo da, 20:00etan. Hiru taldeek lan berriak kaleratu dituzte aurtun. Nevadah-ren kasuan, *Still goes on* hiru

urte eta erdiko lanaren emaitza da eta, gainera, abeslari berriagaz datoz bueltan. Mocker's taldeak *Argia* egin lan berria argitaratu du oraintsu, eta berau aurkezteko bira batean murgilduta daude. Bira ho-

nen ondoren, parentesi bat zabalduko dute taldearen ibilbidean. The Riff Truckers gernikarren azken lanak *Mustang* du izena eta rock doinuak nagusitzen dira. Biharko Albokan'Rolla jaialdiko

beste ekimen batzuk Petitegaz eta lagunekin eguerdian egingo den kalejira, osteko bazkari herrikoia eta 17:00etan hasiko den KSKA kolektiboaren musika emanaldia dira.



Pilota partidua 12:00etan hasiko da, eta musika kontzertuak 20:00etan.



Irailean Izurtzako jaiak iragarriko dituen kartela aukeratu dute

IZURTZA • J.D.

Irailean Izurtzan ospatuko dituzten jaiak iragarriko dituen kartel irabazlea aukeratu dute. Aurtun aurkeztu dituzten lau proposamenen artean, Benedetta Lorussok egindako kartela izan da irabazlea. Kartel koloretsua egin du Lorussok, batez ere berdea eta gorria gailentzen direlarik. Kartelean Izurtzako jaietako hainbat elementu agertzen da: jaietako maskota den basurdea, Izurtzako udaletxea, dantzariak erreferentzia egiten dieten osagaiak (txistua, dantzarien oinetakoak...) eta jaietako zapia, besteak beste.

Txalainak taldeak kontzertua emango du, bihar, Otxandioko Mekoletako jaietan

OTXANDIO • J.D.

Gaur hasi eta domekara bitartean, Arkotxe kultur elkarteak ekimenez beteriko hiru egun antolatu ditu Mekoletako jaien barruan. Esaterako, gaur, 23:30ean, Gozzue, Las Klitorixxx eta Ama Say taldeen kontzertuak ikusteko aukera egongo da.

Zapatuko ekimen erakargarri bat Txalainak taldearen kontzertua da. 19:30ean hasiko da.


Hertzainak taldearen abestiak jotzen dituzte, akustikoan. Gogoratu behar da Hertzainak taldean ibilitako Josu Zabala Mekoletan bizi dela. Orain urtebete Txalainak taldeak Iurretan emandako kontzertuan, Zabala eszenatokira igo zen *Esaiok* kanta abastera. Txalaina taldekoek azaldu dute Iurretakoa ez zegoela prestatuta eta bat-bateko zerbait izan zela. Gertatuko ote

da antzerakorik Mekoletan? Bertara doanak deskubrituko du. Zapatuan ekimen gehiago ere badago: Urduri dantza taldearen saioa, 17:00etan, eta Onintza Enbeita eta Erika Lagomaren bertso afaria, 22:00etan.

Domekan, 10:00etan, mendi erromeria egingo dute San Bernaben, eta 13:30ean Araiako bandaren musikak girotuko ditu jaiak.



Txalainak taldea, zuzeneko emanaldi batean. XIMO BUENO



Gereako ur-jauzia.

Mendi irteera Mallabian, Gereako ur-jauziak ezagutzeko

Sei kilometroko ibilbidea Trabakutik abiatuko dute zapatu goizean; guraso elkarteak antolatutako ekimena da

MALLABIA • J.D.

Gereako ur-jauziak Mallabiko auzoek gordetzen duten natura ondare aberatsaren adibide dira eta mendi irteerak horiek ezagutaraztea du helburu. Zapatuan, 10:30ean ipini dute irteera ordua, Trabakuan. Handik sei bat kilome-

troko ibilbidea dago ur-jauzietara heltzeko.

Kultur Hamabostaldiaren barruan beste ekimen batzuk ere badaude bihar. Esaterako, 18:30ean, Detritus Teatrus antzerki konpainiaren *Sofocos* antzezlan ikusteko aukera dago Kontzejuzarrean.

Uztailaren 22an Asto Trail mendi lasterketa jokatu da Garain

Garaiko Triatloi Taldeak mendi martxa ere antolatu du

GARAI • EKAITZ HERRERA
Garaiko Triatloi Taldeak kirol ekitaldi bi antolatu ditu uztailaren 22rako. Asto Trail mendi lasterketa batetik, eta mendi martxa bestetik. Lehenengoan 30 eurotik 200era arteko sariak egongo dira, eta garaikurrak ere bai. Lasterketak honako ezaugarri hauek ditu: 27 kilometroko luzera eta 1.400 metroko desnibel positiboa. Bestalde, lasterketaz gainera, mendi martxa antolatu dute. 16 kilome-

troko ibilbidea izango da, 700 metroko desnibel positiboa izango duena. Mendi martxan parte hartzeko, 8 euro ordaindu behar dira. Garaitarrek 5 euroko deskontua izango dute. Proba honetan ez da lehiarik egongo. Lasterketarako, 19 euro ordaindu behar dira. Ekitaldi bietarako izena rockthesport.com atarian eman behar da. Probek Garaiko Udala-ren, Eroskiren, Aldundiaren eta Smurfiten babesa dute.



2018ko Asto Trail mendi lasterketa.

Iurretako Udalak aurrekontu parte hartzaileen prozesua hasi du

IURRETA • AITZIBER BASAURI
Iurretako Udalak aurrekontu parte hartzaileen prozesua hasi du, beste behin. Lehenengo, herritarren proposamenak batzeko fasea hasiko dute. Fase horrek ekainaren 18ra arte iraungo du. Gero, zerbitzu teknikoek, jasoriko ekarpenak aztertuko dituzte, eta, jarraian, proiektuak lehenesteko tarteari ekingo diote. Udalak 50.000 euroko aurrekontua lotu du aukeratzen diren proiektuak gauzatzeko.

Etxeetara helduko den galdetegia bete ondoren, udal bulego eta eraikinetan edo herriko hainbat dendatan ipinitako hautetsontzi eta postontzietan utzi daiteke. Bestela, udalaren webgunean prestatutako formulario digitala erabili daiteke. Aurrekontu parte hartzaileen bitartez, komun publikoa eraiki da, bide publikoan irristagaitzak diren tratamenduak egin dira eta Gabonetako argiztapen berria ipini da, besteak beste.



Leire Milikua.TTAP

Emakume nekazarien egoera berbagai Iurretan

Leire Milikuak 'Lur gainean, itzal azpian' liburua aurkeztuko du, Ana de La Maza nekazaria lagun duela

IURRETA • AITZIBER BASAURI
Iurretako Abadetxeak gonbidatuta, Leire Milikua idazle abadiñarrak *Lur gainean itzal azpian* liburua aurkeztuko du datorren ekainaren 15ean. Ekitaldi berezia da Abadetxeko arduradunek antolatu dutena; izan ere, Ana de la Maza nekazariak (Garai Kontserbak) ere parte hartuko

du solasaldian. Milikuak emakume nekazarien egoera aztertutako gura izan du iaz Susa argitaletxeko Lisipe bilduman kaleraturiko saiakeran, eta bertan jasorikoak azalduko ditu aurkezpenean, 19:00etan. Solasaldia amaitu ondoren, bertako produktuak dastatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek.

BETI GERTU!

ELORRIORA

HEMENDIK

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673
Bixente Kapanaga 19, beh. 48215, Iurreta

anboto
kide

Anbotokideen
txokoa

EKAINEKO ZOZKETAK



Uxarte
sagardotegian bi
pertsonentzako
jatordua.



Mendexa Abentura
Park-erako
bi sarrera bikoitz.



Gauargi tabernan bi
pertsonentzako
gosaria. lurreta.

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman
izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

EHZ festibalerako bono bi: Ane Arbeo Sarriugarte eta
Onintza Azkarate Retolaza
Gosaria Xiberun: Arantza Gallastegi

Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Munduko Arrozen jaiak Durangoko herritarren aniztasuna kaleratuko du

Jaialdia zapatu honetan egingo dute, Landako Gunean. Dantza ikuskizunak, txaranga, umeentzako tailerrak eta kontzertuak egongo dira kultur aniztasuna erakusteko

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Aurreiritziak apurtu eta elkarbizitza sustatu. Horixe egingo dute zapatu honetan Munduko Arrozen jaialdian. Arrozak mundu zaballean kolore, errezeta eta zapore ugari duela aprobetxatuta, jaialdian Durangoko bizilagunen aniztasuna islatuko dute. "Herritarrek parte hartzea, espazio publikoak berreskuratzea eta elkarbizitza sustatzea" dira Durangoko parte hartze tailerraren helburuetariko batzuk. "Baita pertsona migratu eta arrazalizatuei buruz ditugun aurreiritziak gainditu eta elkar hobeto ezagutzeko espazio bat sortzea ere", gaineratu dute. 800 bat herritarrek parte hartzea aurreikusten dute. Durangoko 20 elkarte batu ziren jaira. Egitarau osoa anboto.org atarian kontsultatu daiteke.



Munduko Arrozen jaialdia Jesuitak ikastetxean egin zuten iaz.

Durangaldea asteen

Abadiñoko kirol eta kultur elkarteek Kirolaren Eguna ospatuko dute zapatuan, Muntzaratz auzoan

ABADIÑO | Abadiñoko kirol eta kultur elkarteek indarrak batu dituzte elkarregaz egitarau bat osatu eta zapatu osoari begirako egun pasa antolatzeko. 11:00etan hasi eta arratsaldea amaitu arte, hainbat erakustaldi egingo dute Muntzaratzen. Egitaraua De Norte a Sur taldeak zabalduko du, Kirolaren Artea erakustaldiaz. Eneicat taldeko kideek pump track eta ginkana saioa egingo dute gero. 12:00etan sokatira taldekoen erakustaldia egongo da, eta handik ordu erdira Traña-Matienako saskibalo taldearen saioa. 16:00etan mahai-tenis erakustaldia egongo da, eta egunari duatloi batez emango diote amaiera. Azken ekintza hau 18:00etan egingo dute, Muntzaratzeko auzo elkartearen eskutik.

Iurretako ur txorrotak erabilgarri daude jada, 11:00-14:00 eta 16:00-21:00 ordutegiagaz

IURRETA | Iurretako Udalak jakinarazi du Askondoko ur txorrotak erabilgarri daudela. Ekainaren 2an zabaldu zituzten eta halantxik egongo dira herriko umeen gozamenerako. Txorroten ordutegia honako hau da: 11:00-14:00 eta 16:00-21:00. Instalazioak erantzukizunez erabiltzera deitu du udalak.

Peter Memorialeko finalak jokatuko dituzte asteburuan, Ezkurdiko frontoian

DURANGO | Ezkurdiko frontoiak Peter Memorialaren XII. edizioako finalak hartuko ditu asteburuan. Barikuan, 19:30ean hasita, esku pilotako kadeteen finala eta emakumeen paleta goma kategoriako finalak jokatuko dira. Martin-Nogueiras eta Uribe-Gerrikabeitia eta Carmen-Haizea eta Arriaga-Araitx paleta goman. Domekan, 17:30ean, emakumeen eskuz binakako finala eta promesen eskuz binakakoa jokatuko dira. Zarrabeitia-Marijuan eta Azkona-Uriarte emakumeetan, eta Kareaga-Etxebarria eta Murillo Larrañaga promesetan.





UDA

gehigarria 2023

**Maiteminezko
saskia**

1.000
T**OP** produktu
baino gehiago
udan

EROSKI
zurekin

ABADIÑO • JONE GUENETXEA

Uda sasoian, tenperaturaren igoe-
ragaz batera, eguzkitan egoten gara
ordu askoan, eta, kontuz ibili ezik,
ohikoa izaten da erredurak sortzea
aurpegian zein gorputzean. Azken
urteetan eguzkiaren arriskuen in-
guruan geroago eta sentsibilizazio
handiagoa badugu ere, ondo etor-
tzen da aditu bategaz oinarritzko
irizpideak errepasatzea. Leire López
de Aretxaga Abadiñoko Zelaia eta
auzoko farmaziako arduraduna da.

**Eguzkitako krema batek zein ezau-
garri izan behar ditu?**

Lehenengo eta behin, eguzkitik on-
do babestea eta gorputzerako txarra
ez izatea. Gainera, ondo aplikatzeko
erraza izatea komeni da; bestela, ez
dugu ondo ematen eta.

**Zenbat krema kopuru eman behar
da?**

Produktuak ondo estali behar du
azala. Aurpegirako, esate baterako,
bi atzarretan krema ilara bana ipini
beharko litzateke eta gero aurpe-
gian ondo zabaldu.

**Lainotuta dagoenean
ere komeni da krema
ematea. Eguzki izpiek
lainoak zeharkatzen
dituzte, eta urte osoan
eman beharko litzateke**

Zenbatero komeni da ematea?

Krema ordu biro ematea komeni
da. Produktu batzuetan ipintzen
du uretan ere mantentzen direla,
baina uretatik irteterakoan nik
berriro emango nuke, badaezpada.

“Azala zaintzeko eta melanomaren arriskuaz ohartarazteko kanpainak egiten dira eta jendea sentsibilizatuta dago”

Udara begira, azala eguzkitik babesteko irizpideak azaldu ditu Leire López de Aretxaga farmazialariak

**Zer esan gura du babes faktoreak?
Hainbat zenbaki egoten da.**

Eguzkitik zenbat babesten zaituen
adierazten du, eta zenbat denbo-
ran egon zaitezkeen eguzkitan
erre barik. Farmaziara datorren
jendeak 50ekoa eramaten du gehie-
netan. Eguzkitarako babesa far-
mazian erosten dutenek askotan
arazoren bat izaten dute eta, oso
ondo babestu gura dutenez, babes
faktorerik handienekoa eramaten
dute.

**Kremetarik aparte, badago beste
produkturen bat eguzkitik babes-
teko?**

Bai, betakarotenoa duten kapsulak
ere badaude. Kapsula horiek ez
dute eguzkitik babesten. Eguzkia
hartzen denean azala hobeto man-
tentzeko dira. Nahiz eta kapsula
hauek hartu, eguzkitako krema
eman behar da.

**Orain dela urte bi zabaldu genuen
eguzkitako krema poteak balio digu
aurten ere?**

Zabalik badago, ez. Ontzian ber-
tan ipintzen duen moduan, behin
zabalduta normalean sei hilabe-
te irauten dute. Eguzkitako kre-
ma hondartzara eramaten dugu
gehienetan, eta han oso temperatu-
ra altua hartzen duenez hondatu
egiten da. Ontzia zabaldu barik
badago, iraungitze datari begiratu
behar zaio.

**Eguzkitik egun eguzkitsuetan baka-
rrik babestu behar gara?**



Lainotuta dagoenean ere komeni
da krema ematea. Eguzki izpiek
lainoak zeharkatzen dituzte, eta
urte osoan eman beharko litzate-
ke.

**Umeen kasuan, bereziki babestu
behar dira?**

Bi filtro desberdinetako eguzki-
tako kremak daude. Krema ba-
tzuek filtro fisikoak dituzte, eta
beste batzuek filtro kimikoak. Fi-
sikoa azalean geratzen da eta
eguzki izpiek errebotatu egiten
dute. Horiek dira ume txikientzat
gomendatzen direnak, 6 hilabe-
tetik aurrera. Lehenago ez da ko-
meni umeak eguzkitan ipintzea.

Kremak barrera bat egiten du.
Normalean, igartzen da krema
zuria emanda dagoela azalean.
Ondo ikusten duzu non ematen
ari zaren.

**Eguzkitara joan baino zenbat den-
bora lehenago eman behar da kre-
ma?**

Filtro kimikoa dutenak azalean
sartu behar dira eta ordu erdi
lehenago eman behar dira, eta fil-
tro fisikodunak momentuan ber-
tan hasten dira efektua egiten.

**Kremak aplikatzeko aukera asko
dago orain.**

Bai, baina kontuz ibili behar
da, sprai batzuekin zaila delako

jakiten non eta zenbat ematen
ari garen. Praktikoak dira, baina
ondo eman behar dira.

Eta erretzen bagara, zer egin?

Badaude erredurentzako produk-
tuak, azala hidratatzeko, erredu-
ragaz ura galtzen da eta.

**Azken urteetan sentsibilizazio han-
diagoa dago gai honegaz?**

Azala zaintzeko eta melanoma-
ren arriskuaz ohartarazteko
kanpainak egiten dira eta jendea
sentsibilizatuta dago, farmaziara
etortzen den jendea bai behin-
tzat. Geroago eta azaleko minbizi
gehiago detektatzen da eta jen-
deak badu ardura hori.

Udako igerilekuen irekiera **ekainaren 15**ean.



DURANGO
Garena eginez. Vivir y convivir



**Elorrioko Udako
Igerilekuak**

Ekainaren 12tik
irailaren 17ra arte

Informazio guztiak
www.elorrio.eus



Udaleku ibiltarien ibilbidea aldatu egiten da urtero.

Berbaro euskara elkarteak antolaturiko askotariko udalekueetan 300 umek parte hartuko dute aurten

Udaleku finko bi, ibiltariak diren beste bi eta Durangon bertan garatuko den Udan Olgetan

UDALEKUAK • J.D.

Amaitu da ikasturtea eta badatoz udalekuak. Urtea joan eta urtea etorri, Berbaro elkarteak anto-

latzen dituenak arrakastatsuak izaten dira eta aurtengoa ez da salbuespena izango. Plazak beteta daude eta, guztira, 300 bat

gaztetxok parte hartuko dute udaleku desberdinetan.

Udaleku finkoetan aukera bi daude: Larraulen (Gipuzkoa) ekainaren 26tik uztailearen 5era egingo dutena LH3 eta LH4 mailetako gaztetxoentzat da, eta Mendigorriaren (Nafarroa) uztailearen 13tik 24ra egingo dutena, LH5 eta LH6 mailetako ikasleentzat.

Larraulen daudenekin hainbat irteera prestatu dute. Esaterako,

Asteasuko igerilekura joango dira gorputza freskatzera, eta beste irteera batean Ekomuseoa bisitatuko dute. Larrauleko eta Aiztondo haraneko ondarea herriko baserrietatik berreskuratu ondoren, Ekomuseoak landa-munduko pieza etnografikoak ditu ikusgai: laiak, gurdiak, lanabesak, lapikoak, josteko makinak, argizaiolak... Herri ekimenetik sorturiko museoa da.

Mendigorriara joatea hautatu dutenek herritik bost bat kilometrorra dagoen Andion baserrian hartuko dute ostatu. Han ondorengo erreka bat igarotzen da eta bertan piraguan ibiltzeko aprobetxatuko dute. Igerileku bat ere badute bertan. Noizerik noizera Mendigorriara joango dira hainbat ekintza egitera.

Udaleku ibiltariak

Berbaroren beste eskaintza bat udaleku ibiltariak dira: Ibiltari txikia ekainaren 27an Etxarri Aranatzan hasi eta Gasteizen amaituko da uztailearen 8an. Bestalde, Ibiltari handian Bergararik Donostiara joango dira, uztailearen 9tik 20ra. Ibilbide biek eskari handia izan dute eta zozketa bidez banatu dituzte plazak.

Udaleku ibiltariak xarma berezia du, egun bakoitza abentura bat delako eta toki asko ezagutze-

ko aukera ematen duelako. Ikas-tetxeetan edo tokian tokiko pilotalekueetan lo egin eta sorpresaz beteriko egunak izango dituzte aurretik. Ibiltari handian, esaterako, paintballean aritzeko aukera izango dute Lasarte inguruan, eta Hernaniko igerilekuek ere joango dira. Udaleku txikieta-koek ere hainbat ekintza egingo dute; bien arteko diferentzia da laburrean kilometro gutxiago egingo dutela etapa bakoitzean.

Udan olgetan

Berbaroren udalekuekin gozatzeko ez dago zertan Durangal-detik irten. 4tik 10 urtera arteko umeek Durangon bertan ere izango dute aukera Udan Olgetan programagaz. Berbarok Intxaurrondon duen egoitzan batuko dira gaztetxoak, ekain amaieran eta uztailean. Jantokia Ibaizabal ikastolan izango dute. Kasu honetan ere ekimenez beteriko egitaraua izango dute egunero, eta astean behin irteera bat egingo dute Durangal-detik kanpora.

Berbaroren udalekueetan parte hartuko duten gaztetxoek gurasoek dagoeneko badute ekimen hauen guztien berri. Izan ere, Berbaroko kideek batzar zabal bat egin zuten gurasoekin joan zen astean, xehetasun guztiak emateko.

SKATE ESKOLA
Eibar
679 513 592
Web: <https://iparsurfskate.com/eu/>
@ipar_surf_skate IPAR surf & skate

SURF ESKOLA
Debako hondartza
627 325 135
@ipar_surf_skate IPAR surf & skate

zintzilik
Emozioen laborategia

Rigging

Sokaskean

Hegan

Arroila

Jausiak

info@zintzilik.eus
Tel.: 652 752 474
www.zintzilik.eus
@zintzilik_emozioen_laborategia

UDALEKUAK
6 URTETIK AURRERA

Zelai Alai
HIPIKA ESKOLA

ORDUTEGIA AUKERAN

Zaldiaren zaintza

Jolasak

Zaldiketa intentsiboak

Aire zabaleko jarduerak

Txangoak

eta askoz gehiago!

09:30 - 14:00

09:30 - 16:00

INFO +691 74 66 11

ANIMATU ZAITEZ!

urdaibai
Turismo aktiboa eta abentura

Kanoa/Kayak

Urdaibaiako itsasadarren jaitziera kanoan

SUP - Stand Up Paddle

Tel.: 94 627 66 61 / 688 635 190

WhatsApp

Facebook

www.urdaibai.com info@urdaibai.com

mendexa
ABENTURA PARK

ABENTURA PARKEA ETA TIROLINAK
Guztion neurriko zirkuituak

6 ZIRKUITU, 23 TIROLINA,
78 ERRONKA ZUHAITZ ARTEAN!

Tel. 688856283
info@mendexapark.com
www.mendexapark.com

Instagram

Facebook

Twitter

Google+

- TERRAZAK -

Uda heltzeaz batera Durangaldeko terrazek distira egiten dute. Leku ezin hobea dira lagunekin edo senideekin batu eta aisialdia gustura pasatzeko. Zerbitzu bikain bategaz lagunduta, edari eta jaki fresko-freskoek uda giroa gozatuko dizute. Hona hemen eskualdeko terrazarik erakargarrienak, nahieran aukeratzeko.



TXO by Les Villes

San Roke Kalea 17,
Durango

Tel.: 946 218 339

Gosariak egunero 12:00ak arte.
Bazkariak asteburuetan.
Afariak egunero



ARRIPU



Txibitena 9,
Durango

Tel.: 602 387 814

Gure berezitasuna
tortillak dira, 19 zapore
ditugu aukeratzeko
eta denak primerako
osagaiekin egindakoak,
noski.



BODEGON LANDAKO

Txibitena auzoa 12B,
Durango

Tel.: 946 811 940

Gozatu Durangaldeko
burruntzi-pintxorik onenak
hemen bakarrik, Landako
Bodegoian.



LES VILLES

Kanpatorrosteta, 1
Durango

Tel.: 944 668 482

Astelehenetik barikura
eguneko menua.
Asteburuetan menu
berezia.
Karta egunero: plater
konbinatuak, hanburgesak,
sandwichak, bokatak,
errazioak...



LANDAKO TABERNA

Txibitena, 9. Durango

Tel.: 650 063 102

Gosariak, pintxo eta
tortilla eskaintza handia.
Pintxopotea barikuro.
Domeka eta jaiegunetan
rabak, kroketak, txopitoak
eta ortuko rabak.



ZERO

Andra Mari, 6
Durango

Tel.: 946 812 222

Zatoz eta gozatu kafe ona
gure askotariko pintxoak,
asteburuetako afariak, eta
gure mojito eta gin-tonic
bereziak.

- TERRAZAK -



TABERNA ZARRA

Trañabarren etorbidea, 1
Abadiño

Tel.: 946 812 012

Gure terrazara bazkaltzera, afaltzera edo trago bat hartzera etorri zaitezte! Egutegia egutegia menuak eta asteburuetan menu bereziak. Bariku eta zapatu gauez errazioak eta plater konbinatuak. Domeka eta jai egunetan rabak eta kroketak. Giro aparta!



SORGIN

Ibaizabal, 4C
Durango

Tel.: 678 586 143

Terraza berria, pintxo berriak, txibierroak, janari minak, errazioak, musika zuzenean. Zatoz eta goza gaitzazu!



ERROTA

Intxaurrondo kalea 54
Durango

Tel.: 946 216 021

Taberna zabalik dago
07:00etatik 23:00etara.

Gosariak, pintxoak, entsaladak eta ogitartekoak. Merendolak. Terraza ederra, Tabira auzoaren erdigunean.



HOGAN'S

San Juan 1,
Zornotza

Tel.: 946 734 758

Gosariak, pintxo-potea eguen eta barikuetan. Musika zuzenean. Asteburuetan ogitartekoak, hanburesak... Zapatu eta domeketan txibierroak eta txopitoak. Zuen zain gaude!



HERRIA

Askatasun etorbidea, 28
Durango

Tel.: 946 810 513

Astelehenetik barikura goizeko 06:00etatik aurrera zabalik, zapatuetan 08:00etatik aurrera eta domeketan 08:30etik aurrera. Pintxoak eta gosariak. Asteburuetan rabak. Giro polita! Zatoz!



GORA-GORA

Ibaizabal Etxetaldea,
2B Durango

Tel.: 946 550 185

Plater konbinatuak, hanburesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.



AXPE

Plateruen plaza

Pintxoak eta afariak egutegia udan. Animatu eta etorri udako arratsaldeak Axpeko terrazan pasatzera.



KATAZKA

Alluitz 17, Durango

Tel.: 688 655 348

Gosari eta merienda bereziak egutegia.

Brunchak eta meriendak taldeentzako, aldezturik erreserbatuta.

- TERRAZAK -



IURRETAKO NAGUSIEN UDAL ZENTROA

Bixente Kapanaga 9,
lurreta

Tel.: 669 601 122



ABARKETERUENA

Iturritxo, 6 -
Txanporta plaza,
Abadiño

Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta
asteburu eta menu
bereziak. Goizetik
pintxoak. Giro oso ona.



XIBERU

Zezilia Gallartzagaitia,
9. Zornotza

Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero,
pintxopotea ostegunero
eta afariak astebururo.
Giro alaia eta atsegina.
Ongi etorri Xiberura.



GAUARGI

Dantzari 4 behe,
lurreta

Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla
bereziak. Barikuetan
mollete eta errazioak.
Domeketan rabak eta
askotariko errazioak.

*“Donejakue bidea egiten duzu, Pirinioetan
zeharrekoa gero, eta, azkenean, bizikletak
harrapatu egiten zaitu”*



Ander Moreirak (Eibar, 1988), Kepa Astorkiak (Berriz, 1978) eta Jon Urbietak (Berriz, 1986) bizikleta gainean pasatu dituzte azken udako oporrak. Aurten ere horrela izango da

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Ez da askorik falta udako oporrak
heltzeko, eta hamaika izan daitezke
egunok pasatzeko moduak. Askok
deskantsurako baliatzen dituzte opo-

rrak. Baina hori ez da izango Berrizko
hirukote honen plana. Egunerokoan
bizikleta bidelagun duen taldeak Ba-
sajaun proban parte hartzeko baliatu-
ko ditu jaiegunitariko batzuk.

Hasteko, zelan doa prestaketa?

Jon Urbietak: Justutxo. Ez gabilta
askorik prestatzen, egia esan. Pare
bat buelta luze egin ditugu, eta ki-
to. Ikusiko dugu zer gertatzen den.



Tel.: 633 468 947 / www.hontzaextrem.com



**ARBIZUKO
EKOKANPINA**

www.campingarbizu.com

Tel.: 848 470 922

Jatetxerako erreserbak: 635 093 140

INGURUAZ GOZATZEKO LEKU ZORAGARRIA - ETXETXO BERRIAK ALOKAIRUAN

Zelan otu zitzaizuen bertan parte hartzea?

Kepa Astorkia: Gustatu egiten zaigu horrelako proba luzeak egitea. Hainbat egin izan dugu geure kabuz. Aurten Granadara joatea pentsatu genuen, Basajaunen era-ko beste proba bat egitera. Baina ez gintuzten hartu eta honetan izena ematea erabaki genuen. **la 800 kilometro eta 15.000 metroko desnibel positiboa. Eta hori guzti hori bost egunetan, asko jota.**

K.A.: Berez, parte hartzaileak autosufizienteak izan behar dira, bakoitzak bere kabuz egin behar du dena. Irteera bat duzu eta helmuga bat, eta tartean kontrol puntu batzuetatik pasatu behar duzu. Gainera, denbora muga bat daukazu proba amaitzeko. Gainerako dena, lo egin, jan, edan eta egin beharreko guztiak norberak ahal duenean eta ahal duen moduan egin behar ditu.

Kanpoko laguntzarik izan dezake-zue?

J.U.: Ez, ezin da kanpoko laguntzarik izan.

K.A.: Gainera, bizikletan matxuraren bat izanez gero, eta konpontzeko nonbaitera joan beharra badaukazu, behin konponduta berriro ere matxura izan duzun puntura itzuli behar duzu eta berriro bertatik abiatu.

Orduan, logistika aldetik ere ondo antolatu beharko zarete. Dena ez da pedalei eragitea.

J.U.: Ez, horixe da gutxienekoa, pedalei eragitea. Baina, bueno, hori guzti hori oraindino pentsatu barik daukagu. Behin ibilbidearen track-a ematen dutenean

orduan pentsatuko dugu zelan egingo dugun.

Eta proba taldean egin beharrekoa da?

J.U.: Ez, ez da zertan taldean egin. Baina guk hirurok elkarregaz egingo dugu.

K.A.: Berez, hasieran Jonek eta biok eman genuen izena, bikote modura. Anderrek beste bategaz eman behar zuen, baina, azkenean, bakarrik eman du, eta teoriarik ez da gure taldekoa. Kontua da talde bereko pertsonak bata bestearen atzean joan daitezkeela, baina ezin da beste inoren erruberari jarraika joan. Beraz, Ander gugaz etorri ahal izango da, gure ondoan, parean, baina ez gure erruberaren atzean.

Basajaun proba ez da zertan taldean egin. Baina guk hirurok elkarregaz egingo dugu

Ander, zuri horrek arduratzen dizu?

Ander Moreira: Apur bat bai, egia esan. Baina, tira, euren ondoan joan naiteke, eta horrek asko laguntzen du psikologikoki.

K.A.: Eta gauza bat esango dizut, gu denbora guztian bere ondoan joango gara, track-a ondo kontrolatzen du eta. Oporretan egon garen guztietan, pedalei eragin baino ez nuen egiten; ibilbidearen ardura Anderrek izan du beti. Primeran kontrolatzen du dena.

J. U.: Gugaitik izango balitz, orain-

dino Hanburgotik bueltatu ezinda egongo ginatke (barrez).

Jendeak deskantsurako baliatzen ditu oporrak; zuek, oster, bizikleta gainean ibiltzeko. Noiztik zabiltzate honetan?

K.A.: Ni txiki-txikitan ibili nintzen bizikletan, baina gero utzi egin nuen. 39-40 bat urtegar mendiko bizikleta erosi nuen, eta gero errepidekoa. Bategaz elkartu, beste bategaz, eta horrela hasten da dena. Anderrek eta Jonek, oster, urte asko daramatzate bizikletaren munduan.

J.U.: Lehenengo, Donejakue bidea egiten duzu, Pirinioetan zeharrekoa gero, eta, azkenean, bizikletak harrapatu egiten zaitu. Orain urte bi, esaterako, Andaluziara joan ginen oporretan, eta buelta bizikletaz egin genuen. Mediterraneo osotik igaro, Pirinioak pasatu eta etxera bueltatu ginen. Guztira, 2.400 bat kilometro egin genituen. Iaz Hanburgora (Alemania) joan ginen eta handik bizikletaz bueltatu ginen etxera.

Horrenbeste kilometrotan milaka abentura izango dituzue.

K.A.: Mordo bat. Hanburgoko bidaiari, esaterako, barku bat hartu behar genuen tarte batean alde batetik bestera pasatzeko. Barkuan, gizon bat etorri eta argi ibiltzeko esan zigun, inguruetan suteak zeudela eta. Ez geneukan horren berri-rik eta, egia esan, ez genion kasu handiegirik egin. Behin lehorrean, bidegorri batetik jarraitu behar genuen puntu batera heltzeko, eta bide guztiak zarratuta topatzen genituen. Kilometroak egin eta egin genbiltzan eta 23:00 aldera



Berriztarak Alemaniara egindako bidaiari.

herritxo batean geratzea erabaki genuen. Komun publiko bat topatu genuen, eta bertan garbitu bat hartu eta gero Anderrek eta biok eliza batean lo egitea erabaki genuen. Jonek, elizan ez zuela lorik egingo esan, eta kanpoko berdegune batean geratzea erabaki zuen. Lo geundela, Anderrek norbait zegoela esan zidan. Harek frantsesez egiten zigun, eta guk euskaraz edo gaztelaniaz erantzun. Gutxi gorabehera ulertu genuen zer esan gura zuen, baina ez genion kasurik egin. Alde egin zuen, baina laste-

rrera jendarme bigaz agertu zen, eta elizatik kanporatu gintuzten. Azkenean, Jonen ondoan amaitu genuen lotan, belartzan. Horrelakoak hainbat ditugu.

Zergaitik animatuko zenukete jendea horrelako bidaiak egitera?

J.U.: Oporrak pasatzeko beste modu bat da. Gainera, norberak erabakitzen du zenbat kilometro egin, eta noiz egin. Lekuak ikusteko beste modu bat da.

K.A.: Lekuak ezagutzeko askoz ere hobe da, tokiak bertatik bertara ikusten dituzu eta.



Ikasiz Goza Ezazu !

www.aquariumss.com

AQUARIUM

ALLUITZ MOTOR, S.L.

Alluitz, z/g 48200 DURANGO/Bizkaia
Tel.: 946 202 004
taller.alluitz@vasataldea.eus · www.alluitzmotor.com







Edorta Gangutia, Fabian Arriola, Patxi Sanchez eta Iñaki Gorrotxategi.

"Mundua pikutara doan bitartean", Star Drinkers zaldibartarrek rocka egiten jarraitu gura dute

Aurten kaleraturiko diskoa aurkezten dabil laukote zaldibartarra; hurrengo kontzertua etxean dute, Goierri auzoko jaietan

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Patxi Sánchez, Fabian Arriola, Edorta Gangutia eta Iñaki Gorrotxategi zaldibartarrak aspaldiko lagunak dira. Gari Rock elkarteko kideak dira gehienak, eta, horrez gainera, kaletik ere ezagutzen dute elkar, tabernetatik, eurek zehazten duten moduan. 2018an ipini zuten martxan Star Drinkers proiektua, lehenengo urrats sendoak pandemiaren ondoren etorri diren arren. "Pausorik pauso goaz, eta martxa

azken urtean hartu dugu. Iaz diskoa grabatu genuen eta hainbat zuzeneko eman dugu ordutik", azaldu du Fabian Arriolak. Laurek ibilbide luzea dute rock munduan, eta, besteak beste, Quattro Clavos, Los Perrunillas, Sybaris eta Disorders taldeetan aritu dira.

Debuteko lanak sei abesti ditu, eta denek rocka dute oinarri. Hala ere, ez dute doinu mota bakarre mugatu gura izan. "Taldekide bakoitzak bere zaletasunak ditu,

batzuk punkiakoak gara, beste batzuk blueszaleagoak, baina, oinarrian, rock kantak dira. Estilo desberdinak atsegin ditugu eta diskoan horiek ere sartzen ahalegindu gara; horrela, diskoa aberatsagoa geratzen dela iruditzen zaigu", azaldu du Gorrotxategi bateria-jotzaileak; Arriolak gitarra jotzen du, Gangutiak baxua, eta Sanchezek abestu egiten du, Los Perrunillasen bateria jotzen zuen arren. 2020ko martxoan eman behar zuten lehe-

nengo kontzertua, martxoaren 14an hain zuzen ere, baina kontzertua bertan behera geratu zen, sobe- ra ezagunak diren arrazoiengaitik.

Zorte txarrekoak?

Taldekideek txantxa artean diote zorte txarraren fama dutela, baina, hala ere, izendapen hori Sorgin tabernari dagokiola zehaztu gura izan dute. "Jo ditugun beste kontzertu guztiak bikain joan dira, Sorginekoak izan dira arazoak

izan ditugun bakarrak, eta, be- raz, argi dago eurak direla zorte txarrekoak", diote barre artean. 2019ko martxoaren 14an alarma egoeragaitik geratu zen bertan behera kontzertua, eta iaz taberna sabaia jausi zelako geratu zen bertan behera diskoaren aurkez- pen emanaldia. Hala ere, martxoan jo ahal izan zutela zehaztu dute, eta sekulako gaua izan zela.

Diskoa iazko ekainean graba- tu zuten, Berrizko Lorentzo Re- cordsen, Aitor Ariñogaz; asteburu bakarrean grabatu zuten. "Nire lehenengo aldia izan zen guztiok elkarregaz batera grabatzen, baina

Zaldibartarrek iazko ekainean grabatu zuten diskoa, Berrizko Lorentzo records estudioetan

Star Drinkersen diskoak eta kamisetak kontzertuetan erosi daitezke, taldeari laguntzeko

oso erraz joan zen guztia, eta oso gustura geratu gara emaitzagaz". Aurrera begira, formula berari eusteko asmoa agertu dute taldeki- deek. "Gurago dugu urtean behin bost-sei abestiko disko labur bat grabatu eta horiek jo zuzenean, bost urtez disko luze bat prestatzen ibili baino".

Zuzenekoak

Diskoaren grabazioagaz gustura geratu ostean, laukotea diskoa zuzenean aurkezten dabil orain. "Nahiko lasai hartu gura dugu. Errepideko bizitzak asko erretzen du eta aurreko taldeekin ezagutu genuen hori. Oraingo honegaz, gurago dugu gauzak lasaiago har- tu", azaldu du Gorrotxategik. Atzo bertan, taldeak kontzertua eman zuen Abadiñoako Amaraun Arte Fa- brikari, eta hurrengo hitzordua uz- tailerako dute, Zaldibarko Goierri auzoko jaietan. Bertan, diskoaren kopia fisikoak eta euren kamisetak erosi ahal izango dira.

Arriike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

DIBA
K O O P E R A T I B A

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1^a

POSTAL BAT DESERTUAN
Julen Apella
(Balea Zuria)

2^a

CAYO HUESO
Oihane Amantegi
(Elkar)

3^a

EZ ERRAN INORI
Maddi Ane Txoperena
(Elkar)

Egonkortzeko eta hazten jarraitzeko helburuagaz antolatu dute Koba Live jaialdiaren bigarren edizioa

Sei taldek joko dute ekainaren 24an Abadiñon egingo duten metal jaialdian; tartean, Primal Fear, Angelus Apatrida eta El Altar del Holocausto taldeek



El Altar del Holocausto.

MUSIKA • A. M.

"Oso pozik gaude iaz jaialdiak izandako harreragaz. Haztea gura dugu, baina uste dugu urratsez urrats egin behar dugula. Aurten programazioa indartzen ahalegindu gara. Horrela, Alemaniatik Primal Fear taldea etorriko da, eta estatuan

puntako taldeak diren Angelus Apatrida eta El Altar del Holocausto ere etorriko dira", azaldu du Sergio Correa Sugaar elkarteak. Horiez gainera, Mosh talde nafarra eta Durangaldeko talde bi ere igoko dira Abadiñoko jaialdiko agertokira: Sweet Rage eta Blackhearth. "To-

kiko taldeen aldeko apustua indartu gura dugu", esan du Correarek. Eta azpimarratu du inguruetan egingo den metal jaialdirik garrantzitsuenetarikoa bat izango dela Abadiñokoa. Horretarako egiten dabiltzan ahalegina goraipatu du: "Primal Fear taldeak disko berria kaleratu-

ko du irailean, eta gurea izango da hori egin aurretik inguruan egingo duen kontzertu bakarra".

Mikel Garaizabal jarduneko alkatea ere pozik agertu da iazko Koba Live jaialdiaren arrakastagaz. "Iazko arrakasta eta aurtengo edizioa ikusita, ekimena

errotzen dabilela ikusi daiteke", esan du. Elkarlana eta Abadiñon izango duen eragin ekonomiko positiboa nabarmendu du Argi Abad jarduneko kultura eta gazteria zinegotziak. "Edozein duda agertu den bakoitzean, konponbidea bizkor topatzen ahalegindu gara; ekimenak eragin positiboa izango du Abadiñoko taberna eta komertzioetan", azaldu du. Hiru ordezkariak, urte osoan zehar egindako lana nabarmendu dute, eta aurrera begirako erronkak zeintzuk diren ere zehaztu dute. Horrela, aurtengo berrikuntzen artean puntu morea eta irisgarritasun azpiegiturak nabarmendu dituzte, besteak beste.

Aurreko jaiagaz, pozik

Maitzaren 27an Koba Sessions jaialdia egin zuten Durangoko Plateruena kultur aterpean, Koba Live jaialdiari begira giroa berrotzeko. Correa pozik agertu da ekimenak izandako harreragaz. "Egia da arazo bat eduki genuela tabernako barragaz, baina, bestela, oso ondo egon zen; musikariak eta musikazaleek giroa eta jasoriko tratua nabarmendu zituzten. Oso baliagarria izan da Koba Live jaialdiak hazten jarraitzeko, eta balorazioa positiboa da", azaldu du.

Gai librean

Isilaraziak XIV

Arte eta Historia Museoan *Divina Commedia* erakusketa dago ikusgai uztailaren 2ra arte. Erakusketa honetan hainbat artistaren lanak biltzen dira, guztiak Dante Alighieri idazlearen liburuetan oinarritzen dira: infernua, purgatorioa eta paradisia dira artelan hauen kokapenak. Danteren idatzian pertsonaia garrantzitsu bat azaltzen da, Beatrice. Asko idatzi eta errepresentatu da emakume hau historian zehar, baina berari buruzko benetako datu gutxi batzuk bakarrik ditugu. Batzuen arabera, agian ez zen inoiz existitu ere egin. Beste batzuen aburuz Beatrice Portinari izango litzateke Danteren testuan azaltzen den emakumea. 1266 edo 1268an Florentzian jaiozako aristokrata.



Garazi Arrizabalaga Cabrerizo
Durangoko Museoa

Alighierik kontatzen duenaren arabera, 8 eta 9 urte zituztela ikusi zuten elkar lehenengoz, eta gero beste 9 urte igaro behar izan ziren berriro elkar ikusteko. Bigarren topaketa honetan, Florentziako kaletik lagunekin zihoala, Beatricek Dante ezagutu eta agurtu egin zuen. Ordutik aurrera, Beatrice Danteren obsesio bihurtu zen, nahiz eta ez zioten inoiz ere hitzik esan bata besteari. Gainera, ordurako florentziar aristokrata, Micer Simone de' Bardi florentziar bankariarekin ezkondu zegoen. Baina hau ez zen oztopoa izan Alighierirentzat. Tamaletz, handik gutxira, Beatrice hil egin zen, 23 urte zituela. Urte gutxira, Dante Gemma izeneko emakume batekin ezkondu zen eta hainbat seme-alaba izan zituzten, baina florentziarrarentzat Beatrice izan zen bere benetako amodioa. *Divina Commedia*-n Beatricek

infernutik salbatzen du Dante, eta batera daude purgatorioan, eta batez ere paradisuari.

Liburuaren fama hain handia egin zen, ezen Erdi Arotik gaur egunera arteko artelanen protagonista izan dela Beatriceren eta Danteren amodiozko erlazioa, besteak beste, Henry Holiday, Dante Gabriel Rossetti, Giuseppe Pelli, John William Waterhouse, William Dyce eta Roberto Ferriren lanetan ikusi daitekeen bezala. Baina ez dugu ahaztu behar ez zela inoiz erlazioz existitu, Beatriceren sentimenduak ez direla inoiz kontuan hartu, florentziarren arteko elkarriketa bakarra agur bat izan zela. Beste behin ere, ahoa zabaltzeko aukerarik ez duen emakumea. Besteek nahi izan dutenarengatik ezagutua izan dena, baina bere hitzik entzun ez duguna, isilarazia izan dena.



Ezkerrean Jokin Altuna eta eskuman Aitor Elordi buruz buruko txapela jantzita. ASPELOTA



Astelehenean, Elordi Mallabiko udaletxean.



Mallabiko frontoia jendez lepo pilotariaren harreran, domekan.

"Hurrengo partidura arte atsedean hartuko dut, bai fisikoki eta baita psikologikoki ere"

Aitor Elordik handia egin du. Buruz buruko txapela jantzita Mallabia osoa eta Bizkaiko pilota mundua hankaz gora ipini ditu. Orain udako partiduak datozkio kamiseta gorria jantzita

PILOTA • JOSEBA DERTEANO/MAIALEN ZUAZU-BISKAR/JONE GUENETXEA

Orain urtebete gutxi batzuen kineletan sartuko zen Aitor Elordi buruz buruko finalera helduko zela. Eta final hori Jokin Altuna handiaren aurka irabazteko kapaz izango zela oraindino gutxiago. Baina, esaerak dioen legez, ezina ekinez egina. Pilotari mallabitarrek ez du etsi eta ereindakoaren fruituak jaso zituen joan zen domekan.

Aitor Elordik domekako jaia-
ren osteko biharamuna izango
zuen astelehenean, baina ez
zitzaion igarri ere egin. Mallabi-
ko udaletxean kazetariekin
batu zen galderei erantzuteko.

"Hurrengo partidua ekainaren
16an jokatuko dut, herrian, eta
ordura arte atsedean hartuko dut,
bai fisikoki eta baita psikologiko-
ki ere. Urte gogorra izan da eta

**"Gauzak lortzen
dituzunean ez zara
kontziente, baina egun
hauetan askoz ere hobeto
asimilatuko dut dena"**

ondo etorriko zait udari aurre
egiteko. Gauzak lortzen dituzu-
nean, momentuan bertan ez zara
kontziente, baina egun hauetan

askoz ere hobeto asimilatuko dut
dena", azaldu zuen pilotari ma-
llabitarrek. Beraz, buruz buruko
txapeldun denetik, lehenengo
partidua Mallabian jokatuko du,
Bizkaia Txapelketan. Atsedena
ondo etorriko zaio, uda partiduz
beterik izango du eta.

Partidu gogoangarria

Bizkaia frontoia lepo beterik, ma-
llabitarren ez zitzaion animorik
falta izan joan zen domekan. Jo-
kin Altuna lau tantoko aldeagaz
heldu zen lehenengo atsedena-
dira (8-12), baina bete-beteko par-
tidua jokatzen zebiltzan biak eta
markagailuari arriskua ikusten
zitzaion. Kantxara bueltan, Elor-

di 11-12 hurreratu zen markagai-
luan, hiru tanto ederri eskerrak.
Eta, hortik aurrera, partiduari
buelta eman eta garaipena lortu
zuen.

Domekako partiduan erakutsi
zuen jokoari buruzko gogoeta
egin zuen Elordik astelehenean:
"Bagenekien Altunari irabaztea
gatxa zena, baina ez ezinezkoa.
Horrelako final bat irabaztea pas-
telari falta zitzaion ginga izan da.
Hasieran kostatu egin zitzaidan
partiduan sartzea, baina bane-
kien hobetzen joango nintzena
partidua amaitu arte. Ez nuen
etsi eta aurrera egin nuen. Par-
tiduaren bigarren zatian pauso
bat aurrera egin nuen eta horri
eskerrak markagailuari buelta
ematea lortu nuen. Burua hotz
izan nuen eta kontzentrazioari
amaierara arte eutsi nion. Dina-
mika aldatzea eta arriskatzea
erabaki nuen. Biok partidu kon-
pletoa egin genuen eta uste dut
jendeak disfrutatu egin zuela".
Konfiantzagaz eta seguru jokatu
zuen mallabitarrek. Irabazteagaz
batera, frontoiko eskailerak ziztu
bizian igo zituen, gurasoei be-
sarkada estu bat emateko. Haiek
ondotxo dakite horrelako garai-
pen bat zenbat kostatzen den.
Amamarentzat urtebetetze opari
ezin hobea izan zen, gainera.
Hortik aurrera, txapela jantzi eta
poztasun eztanda gertatu zen,
bai Bizkaia frontoian eta baita
Mallabian ere.

Ospakizun hunkigarria

Mallabian egun osoko jaia zuten
prestatuta joan zen domekara-
ko. Elordik irabazi zein galdu,
harrera egin eta afarian herria
batzea zen asmoa. Txapela jantzi-
ta zein txapelik barik pilotariari
poztasunez ondoetorria eman
gura zioten, finalera heltze hu-
tsa sekulako lorpena delako. Au-
rreikuspenik onenak bete
ziren, eta arratsalde-gau hartan
Mallabian batu zirenek ez dute

bizitakoa ahaztuko. Lehenengo,
Bilboko partidura mallabitarra
animatzera joan ziren herrikide,
lagun eta senitartekoak Mallabi-
ko herrigunera heldu ziren, hiru
autobusetan. Pozez zorutzen zeu-
den. 21:30ean heldu zen Elordi,
txapela jantzita eta kopa eskuan
zuela. Mallabiko frontoiko sa-
rreran, zain zituen bere pilota
eskolako ume eta gazteak. Eta,
barruan, herrikide, lagun, seni-
tarteko eta zaleek merezitako on-

**"Buruz buruko
txapelduna Mallabian
dago eta disfrutatu
dezagun"**

doetorria egin zioten. Gurasoak
aldamenean zituela, argazkiak
atera zituzten. Besarkadak alde
guztietatik.

ANBOToko kazetarien gal-
derei ere erantzun zien Elordik.
Durangaldeko hedabideak pilo-
tari mallabitarra hazten ikusi
du, eta ezin hitzorduari hutsik
egin. "Momentu historikoak dira,
Bizkaian urte batzuk pasatu dira
buruz buruko txapelik ez dena
egon. Zeinek eta nik lortzea oho-
re handi bat da. Inork pentsatzen
ez zuen sari bat lortu dut", azaldu
zuen Elordik txapela jantzi eta
gutxira. "Buruz buruko txapeldu-
na Mallabian dago eta disfrutatu
dezagun", gaineratu zuen txapel-
dunak. Harrera ekitaldiko beste
momentu hunkigarrietariko bat
Beñat Ugartetxea bertsolariaren
bederatzi puntuko bertsoa izan
zen. "Txapela atara, duzu eta ha-
ra, zeurea da jada, merezi gisara,
urtebetean gorritz jantziko zara",
abestu zuen bertsoaren amaie-
ran soinean zeraman kamiseta
gorria gogor ebatuz. Herriko
abesbatzaren doinupean dantza-
riek agurra dantzatu zioten gero.

Binakako sega-sail txapelketa egingo dute domekan, Elorrión

Iazko harrera onak animatuta, bigarren urtez jarraian Gazeta auzoan antolatuko dute txapelketa, lau bikotegaz

SEGA • J.D.

Bigarren urtez jarraian, Elorrioko Gazeta Auzoak binakako sega-sail txapelketa hartuko du domeka honetan. Txapelketa Bizkaira ekarrita, antolatzaileek mugarri bat ezarri zuten iaz, eta, harrera ona izan zenez, aurtén errepikatzea erabaki dute.

12:30ean hasita, lau bikote arituko dira lehian. Iazko txapeldunek –Luixa Uzkunek eta Izadi Arrospidek–, aurtén ere parte hartuko dute, baina bes-

te bikote batzuekin. Uzkudun Jugatx Agirregaz ibiliko da, eta Arrospide Ainhoa Mazkiarane-gaz. Beste bikote biak honako hauek dira: Susana Lopez-Alaitz Imaz eta Sheyla Sarasola-Ainara Otamendi. Txapelketa nazioarteko erara lehiatuko dute. Hau da, ebakitako kantitatea barik, belarra ebakitzeko txukuntasuna, zehaztasuna eta antzerakoak kontuan hartuko dira.

Txapelketa Almitza elkartearen eta Gazetako Lagunarte Kofradiaren artean antolatu dute.



Iazko txapelketako sari banaketa.

Elorrioko openak kickboxingean esperientzia hartzeko aukera emango die hasiberriei

Iazko lehenengo aldia arrakastatsua izan zen eta zapatu honetan bigarrenaz egingo dute pilotalekuan



Borrokalaria bi iazko lehenengo aldian, Elorrión.

KICKBOXING • J.D.

Iazko arrakasta ikusita, aurtén ere Kickboxing Opena egingo dute Elorrioko Hilario Azkarate pilotalekuan. Indar Sport klubak antolatu du bigarren edizio hau ere, Elorrioko Udalaren laguntzagaz. Txapelketa ofiziala izango da, Euskadiko Boxeo Federazioaren babespean egiten delako.

Zapatu honetan, haur kategoriatik hasi eta senior eta master kategorietarainoko borrokariak parte hartuko dute, 10:00etatik 15:00etara. Kirol klub guztiei zabalik dagoen txapelketa da, eta, antolatzaileen esanetan, kirolariak Euskadiko

eta Espainiako txapelketetarako prestatzea da helburua: “Opena borrokalaria amateurrei zuzenduta dago. Izan ere, hasiberrientzat esperientzia gogorregiak izan daitezke Euskadiko txapelketak eta antzerakoak. Horrelako aukerak garrantzitsuak dira, maila berekoen kontra aritzen direlako, eta gozatzea eta ikastea delako helburu nagusia”, adierazi dute Indar Sport klubetik. Kickboxinga ezagutaraztea ere badute helburu, eta bertaratzeko deia egin diete herritarrei. “Aukera ona da ohikoa ez den kirol eta txapelketa bat ikusteko”, esan dute.

Senar-Loza eta De la Fuente-Lizeaga bikoteak, Biharko Izarrak txapelaren

PILOTA • J.D.

Asteburu honetan ez dago pilota partidu profesionalik. Buzur burukoa amaitu berritan, atsedén asteburua dute. Beraz, pilota munduak afizionatuétan ipiniko du begirada eta, batez ere, Biharko Izarrak txapelketan, finalak gaur bertan jokatu-ko dira eta, 19:00etan.

Gizonetan, Senar-Loza eta De la Fuente-Lizeaga bikoteek neurtuko dituzte indarrak. Zein bikote den faborito esatea ez da erraza, txapelketa honetan

Emakumeen lau eta erdikoan Amaia Aldaik eta Enara Gamindek neurtuko dituzte indarrak

ez dagoelako bikote finkorik. Aldatzen joaten dira. Esaterako, finalerdietan Senar Lizeagagaz aritu zen, eta De la Fente Lozagaz. Baina lauren maila ikusita, pare-pareko partidua irten daiteke.

Beste finala, emakumeen lau eta erdikoa, Amaia Aldaik eta Enara Gamindek jokatuko dute. Eurak izan ziren pilotaririk erregularrenak ligaxkan. Hiru partidu irabazi ditu dimoztarrak eta bi bere aurkariak.

Jokaldia

Motibazioa lesio prozesuetan

Kirolari baten motibazio maila ez da beti goian egoten. Adibidez, lesio bat agertzen denean, zaila izaten da burua indartsu izatea errekupeazio prozesuan. Momentu zailetan motibatuta egotea garrantzitsua da errekupeazio arrakastatsua lortzeko. Lehenik eta behin, ezinbestekoa da lesioa onartzea eta ulertzea. Motibatuta egoteko estrategia on bat helburu errealistak ezartzea da. Berreskuratze-prozesua fase txikiagoetan zatitzeak bideratzen lagungarri gerta daiteke eta aurrera egiten ari zarela senti dezakezu. Mugarri txiki guztiak ospatu! Mugikortasuna areagotzea edo mina murrizten doala sentitzea.

Era berean, laguntza fisikoa eta emozionala bilatu. Medikuekin hitz egin,



Garazi Sampedro Arando
Mendi lasterketak

Momentu zailetan motibatuta egotea garrantzitsua da errekupeazio arrakastatsua lortzeko

Ez ahaztu bizitzako beste arlo batzuk. Gustatzen zaizkizun beste jarduera batzuk egin ditzakezu

terapeuta fisikoarekin edo prestatzailearekin orientazio eta aholku eske. Antzeko lesioak jasan dituzten beste kirolariekin konektatzea ere lagungarria da, esperientziak partekatzea eta elkarrenganako animoak jasotzea inspiratzailea eta pozgarria izan daitekeelako.

Gainera, ez ahaztu zure bizitzako beste arlo batzuk. Gustatzen zaizkizun beste jarduera batzuk egin ditzakezu. Mantendu dieta ona eta zaindu zure osasun mentala. Zure kirol eta bizitza pertsonalaren arteko oreka ezartzeak ikuspegi zabalagoa mantentzen lagunduko dizu eta errehabilitazioan motibatuta egoten lagunduko dizu.

Azkenik, gogoratu lesio bakoitza kirolari gisa ikasteko eta hazteko aukera dela. Erabili denbora hau zure entrenamenduaren ahuleziak identifikatzeko, zure teknika hobetzeko eta etorkizuneko lesioak saihesteko. Kirol lesio batean motibatuta egotea zaila izan daiteke, baina pentsamolde positiboa, helburu errealistak, laguntza eta dedikazioarekin, oztopo hau gainditu eta inoiz baino indartsuago itzul zaitezke. Ez etsi eta eutsi gogor zure errehabilitazioan!



Kopla txapelketa

BERTSOAK IURRETA :: Ekainak 9

Durangaldeko VIII. Kopla Txapelketa egingo dute, gaur, Abadetxean

Durangaldeko Kopla Txapelketak eskualdeko hamar bertsolari batuko ditu beste behin. Aurtengoa VIII. edizioa da eta Iurretako Abadetxea izango dute aterpe. Bertsolari hauek arituko dira bertsoan: Bittor Altube, Janire Arrizabalaga, Ixone Asategi, Irune Basagoiti, Igor Galarza, Unai Iturriaga, Naroa Jaio, Gorka Lazkano, Paulo Salterain eta Ander Sarriugarte.

Iruri Altzerreka, Itxaro Juaristi eta Ainhoa Urien izango dituzte gai jartzaile. Gaur da saioa, 20:30ean.

Urtero jai giro itzelean egingo dute Durangaldeko Bertso Eskolak antolaturiko Kopla Txapelketa, eta oraingo honetan ere halantxik izango da. Izan ere, antolatzaileek jakinarazi dute "munduko trikitilaririk onek" ere parte hartuko dutela.

Ekainaren 9an

ABADIÑO hitzaldia

‘Senegaleko kaleko umeak: ume talibeak. Gaur egungo mikroarrazakeriak’ (Hizlaria: Itziar Larrinaga), 19:00etan, Isiotuko lokalean. Ondoren, pintxoak eta karaokea.

BERRIZ tailerra

Musika tresnen tailerra (Josu Urrutia), 17:00etan, Olakuetan.

DURANGO euskal jaiak

Joko tradizionalen topaketa, 10:00etan, Landako kiroldegian. XII. Peter Memoriala esku pilota txapelketako finalak, 19:30etan, Ezkurdi frontoian.

IURRETA antzerkia

‘Menina, soy una puta obra de Velázquez’ (Proyecto Cultura), 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

MALLABIA jaia

Denboraldi amaierako jaia, 16:15ean, eskolan (Mallabia Kirol Elkartea). Biharko Izarrak: finalak, 19:00etan, frontoian.

OTXANDIO jaiak

Txupina 21:00etan, Mekoletan. Gazte afaria 21:30ean. GOZZUE + Las KLITORIXXX + AMA SAY, 23:30ean.

Ekainaren 10ean

DURANGO euskal jaiak

Tabira Musika Banda, 13:00etan, Landako Gunean.

XIX. Zesta-punta

txapelketako finalak, 18:00etan, Ezkurdi frontoian. ‘Durango Hiria’ txistu kontzertua (Silboberri), 19:30ean, San Agustin kulturegunean.

DURANGO munduko arrozak

Umeentzako tailerrak, 11:00etan, Landako Gunean. Ghana United txaranga, 12:00etan. Dantzak: Virgen del Cisne+Nicarao, 13:00etan. Kontzertua: Moze Maya, 13:45ean. Bazkaria, 14:30ean. Dj DeeJay_Enock, 16:15ean.

ELORRIO azoka

X. Ogibideen Azoka, San Agustin auzoan. Gaia: Emigrazio eta industrializazio garaia (60ko hamarkada).

MALLABIA jaialdia

Mendi irteera: Gereako ur-jauziak. Trabakutik irteera, 10:30ean. Bazkari autogestionatua, 14:30ean, frontoian (Guraso Elkartea). Arratsaldean, pilota partiduak. ‘Sofocos’ (Detritus Teatrus), 18:30ean, Kontzejuzarrean.

MAÑARIA Albokan’Rolla

Kalejira albokagaz, 10:00etan. Pilota partidua: Goñi-Azanza vs Urmeneta-Pascual, 12:00etan. Unai Gaztelumendi eta Oihana Bartra bertsolariak girotuta. Kalejira: Petite eta lagunak, 13:00etan. Bazkaria, 14:30ean, Herriko Tabernan.

KSKA Seletorrak, 17:00etan.

Mocker’s + Nevadah + The Riff Truckers, 20:00etan. DJ Elvis Cayno, 00:00etan, Herriko Tabernan.

OTXANDIO jaiak

Urduri dantza taldea, 17:00etan, Mekoletan. DJ Kaktus, 18:00etan. Txalainak, 19:30ean. Bertso afaria: Onintza Enbeita eta Erika Lagoma, 21:30ean. Erromeria: Xabi Aburruzaga eta Aitor Uribarri.

ZORNOTZA musika

‘Atzoko aldapeko, gaur’ (Zornotzako Musika Banda), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Ekainaren 11n

BERRIZ topaketa

XVI. Kultur Arteko Topaketa, Legaño auzoan. Dantzariak, 12:00etan. Tailerrak: henna, trentzak..., 12:30ean. Munduko janari dastaketa, 14:00etan. MLOP kulturala ikuskizuna, 17:00etan.

DURANGO euskal jaiak

Pilota eguna, 10:00etan, Ezkurdi frontoian. Nomadak Gaittun azoka, Merkatu plazan (11:00- 17:30). Kalejira eta dantza saioa, 12:00etan, Merkatu Plazatik (Tronperri, Txoritxu Alai, Kriskitin,

Jaizale eta Musika Eskolako txistu taldea).

Julene Azpeitia sari

banaketa, 12:00etan, Plateruenean. Pilota partiduak, 17:30ean, Ezkurdi frontoian.

ELORRIO azoka

VII. Urarkako Azoka, 10:30etik 14:30era.

OTXANDIO jaiak

San Bernabera ibilaldia, 09:00etan, plazatik. Erromeria, 10:00etan, San Bernaben. Meza eta luntxa, 12:30ean. Araiko Banda, 13:30ean. Briska eta mus txapelketak, 17:00etan.

Ekainaren 15ean

ABADIÑO musika

Keia, 19:30ean, Amaraun Arte Fabrikan.

DURANGO musika

Jon Antón pianista, 19:00etan, Arte eta Historia museoan.

DURANGO musika

‘Chuleria, JODER!’, 21:00etan, Intxaurre tabernan.

IURRETA aurkezpena

‘Lur gainean, itzal azpian’ liburu aurkezpena, 19:00etan Abadetxean. Leire Milikua idazlea eta Ana de la Maza nekazaria. Ondoren, bertako produktuen dastatzea.

Zinema

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

• Transformers: el despertar de las bestias

barikua 9: 18:30 / 21:00
zapatua 10: 16:30/19:00/21:30
domeka 11: 16:30/19:45
astelehena 12: 17:45/20:15
martitzena 13: 17:45 / 20:15
eguztzena 14: 19:00

• Todo sobre mi padre

barikua 9: 18:30 / 21:00
zapatua 10: 19:30 / 21:30
domeka 11 19:00/21:00
astelehena 12: 18:00/20:15
martitzena 13: 18:00 /20:15
eguztzena 14: 20:00

• El maestro jardinero

barikua 9: 18:30
zapatua 10: 19:00
domeka 11: 21:00
astelehena 12: 18:00
martitzena 13: 20:15
eguztzena 14: 19:00

• La desconocida

barikua 9: 21:00
zapatua 10: 21:30
domeka 11: 19:00
astelehena 12: 20:15
martitzena 13: 18:00
eguztzena 14: 18:00

• Spider-man: cruzando el multiverso

zapatua 10: 16:45
domeka 11: 16:45

• La sirenita

zapatua 10: 16:30
domeka 11: 16:30


::Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• Una buena persona

barikua 9: 20:00
domeka 11: 20:00
astelehena 12: 20:15

• Hanna y los monstruos

domeka 11: 17:00



ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Botikak			
BARIKUA, 9 · 09:00-09:00		09:00-22:00	
BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO		SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA		ASTELEHENA, 12 · 09:00-09:00	
09:00-22:00		MUGICA, ANDRA MARIA 9 - DURANGO	
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO		GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA	
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA		09:00-22:00	
ZAPATUA, 10 · 09:00-09:00		SANCHEZ, RBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	
DE DIEGO, INTXAURRONGO 22. - DURANGO		SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	
GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA		IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	
09:00-13:30		MARTITZENA, 13 · 09:00-09:00	
BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO		BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO	
SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO		GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA	
GAZTELUMENDI, J.A.ABASOLO 2 - DURANGO		09:00-22:00	
BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO		SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	
NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO		SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	
CAMPILLO, MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO		IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	
SANTAMARIA, ERREKAKALE 6. - ELORRIO		EGUAZTENA, 14 · 09:00-09:00	
FARMAZIA MATIENA, TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO		NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO	
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA		GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA	
MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA		09:00-22:00	
RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA		SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	
GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA		SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	
09:00-14:00		IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	
IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA		EGUENA, 15 · 09:00-09:00	
09:00-22:00		IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA	
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO		GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA	
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA		09:00-22:00	
DOMEKA, 11 · 09:00-09:00		SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	
UNAMUNZAGA, MURUETATORRE 2C - DURANGO		IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	
GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA		SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	



Jaime Elorza Arroita Jauregi

2023ko ekainaren 2an hil zen, 81 urte gaz.



Ikusten nebanean izar argitsu bat, zeruko bakean, zuretzat bakarrik nire gogoa zan... Baina orain, zu barik, negar egin dot gabea.

Nieves, Olatz eta Luix, Igor eta Leire, Maddi, Garazi eta Malen.

Eskerrik asko egunotan zuen berotasuna helarazi deuskuzuen danoi.

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEO 14:00AKARTEKO EPEA



Zorionak guztioi!

GOZATU GOZOTEGIA

Zorionak, **Ur (937. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia



1998 2023

Aitziber eta Aitor, duela 25 urteko argazki berdina egin ahal izan duzue, eta asko esaten du zuen ondasunaz. Zorionak! Maite zaituztegu!



Zorionak, **Paula**! Egun ona pasau eta bihar trago bat zure kontu!



Zorionak, farmazeutika! Jarraitu urte askuen gure dudak argitzen.



Susana Rodriguezek ekainaren 8an urteak egin zituen. Zorionak eta merezi duzun bezala ospatu.



Zorionak, **Jakes**! Konturatu barik 9 urte ja! jarraitu orain arte bezala, artista! Mosu potolo bat maite zaitugun guztion partez.



Zorionak, txapeldun! Esfortzu guztiek saria dute. Merez duzu. Muxu bat zure familia eta lagunen partez.

Eguraldia		
ZAPATUA 🌧️ 16° / 26°	ASTELEHENA 🌧️ 17° / 25°	EGUAZTENA 🌧️ 16° / 24°
DOMEKA 🌧️ 17° / 27°	MARTITZENA 🌧️ 16° / 22°	EGUENA 🌞 14° / 25°



clínica dental hortzklinika

b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTOLOGIA · KIRURGIA
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA IKUSEZINA
ODONTOPEDIATRIA - PADI · HORTZETAKO ESTETIKA
HORTZETAKO ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, beheka - 48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

805.145.13

"AEBek asko erakartzen naute eta badut hara bueltatzeko asmoa"

Jose Ramon Urrestik 27 urte egin zituen Amerikako Estatu Batuetan, Elorrioko Goitia baserrira etorri arte. Idaho, Colorado eta Kalifornia estatuetan ibili zen lanean



Jose Ramon Urresti Aranguren
Baserritarra
ONDARROA | 1938

ELORRIO • AITZIBER BASAURI

29 urtegaz, Jose Ramon Urrestik Ondarroako Alleri baserrira utzi zuen AEBetara joateko. Urte batzuetan ardiekin lan egin zuen, Montejon (Idaho), baina, batez ere, tunelen eraikuntzan aritu zen lanean.

Zerk eraman zintuen AEBetara?

Dirua irabaztera joan nintzen, eta abentura bila ere bai. Arreba nuen han, eta lau urterako kontratuagaz joan nintzen, ardiak zaintzera. 1968ko azaroaren 31n heldu nintzen New Yorkera, beste bi lagunegaz –Mungiako bat eta Berriatuako beste bat–. Eta handik Boisera (Idaho). Igeltseroa izanik,

eraikuntzan lan egin gura nuen, baina pentsatu nuen urtebete inguru eutsiko niola.

Eta halantxik egin zenuen.

Urte bi eta erdi egin nituen kanpero Idahon, Bizitoki Iraunkorreko Txartela (Green Card) lortu nuen arte. Artzaina eta biok joaten ginen ardiekin. Otsail-martxo inguruan basamortura joaten ginen, gurdiaz. Hilabete inguru egiten genuen han, mendietan edurra kendu bitartean. Gero, hiru zaldi eta mando bigaz mendialdera joaten ginen, erreserbetara. Bi-hiru egun toki batean egin ondoren, hurrengo batera joaten ginen. Ardi-kanpoa batu eta berria muntatu, animaliak

gobernatu, kozinatu... horixe izaten zen nire lana. Talde bakoitzak 2.000 buru inguru eramaten genituen, ardiak eta jaiotako bildotsak. Nevadan, artzaina bakarrik joaten zen, terrenoa hobea delako.

Hilabete inguru egiten genuen basamortuan ardiekin, mendietatik edurra kendu bitartean"

Lan gogorra zen hura?

Ez da gogorra, ardiak zaindu egin behar dira. Hori bai, han egon beharra dago, fraideak komentuan

legez. Batzuek ez dute ulertzen, baina ohitu egiten zara han egotera, bakarrik egotera. Ni ez naiz asperitzen bakarrik egonda.

AEBetara heltzean igarriko zenuen aldaketa, ezta?

Gogoan dut Boisen hegazkinetik jaitsita dena argia zela, kaleak argiz beterik zeudela. Kolore guztietako bonbillak! Irratian Las Vegas (Nevada) ikustea ikaragarria dela entzun dut inoiz, eta pentsatu dut han ibiltzeaz gogaitu egin nintzela. Aspertu egiten naiz beti toki berean egoteaz. Gainera, jende asko batzen diren tokiak ez zaizkit gustatzen.

Bizitoki Iraunkorreko Txartela lortuta Euskal Herrira bueltatu zinen.

Bai, baina, txartela ez galtzeko, urtea pasatu baino lehenago bueltatu nintzen berriro Idahora. Eta handik segituan Elkora (Nevada) joan nintzen. Ez nuen ardiekin lan egin gura. Horregaitik, eraikuntzan lan egin nuen, tuneletan lan egiten zuen aulestiar bat ezagutu nuen arte. Orduan, Coloradora joan nintzen trenbideetako tuneletan lan egitera; zati batean, ubideak eraikitzen ere ibili nintzen, Aspen hirian. Zazpi urte egin nituen Coloradon, Fresnora (California) joan aurretik; Turbina elektrikoekin lan egin nuen han.

Urte askoan lan egin zenuen tuneletan.

15 urtean. Ondo egin beharreko lana da, tunela jausteko arriskua hor dago eta. Alde horretatik da gogorra. Diru asko irabazten genuen, eta aurreztu egin nuen. Bada, 50 urte egiteko nintzela utzi nion lan egiteari. 80ko hamarkadan, 1.000 dolar irabazten nituen astean. Coloradon, San Franciscora joaten nintzen asteburuetan. Inoiz Los Angelesera. Idahon, Denverreara.

Bueltatu zara?

Familia kontuengaitik bueltatu nintzen, 1995ean, eta lau urtean joan barik egon eta gero, urtero joaten hasi nintzen berriro, koronabirusa heldu arte. AEBek asko erakartzen naute eta badut hara bueltatzeko asmoa. Haiekin egin dut bizimodua, haiekin lan egin dut eta hango kulturara egokitu naiz. Ez dut sentitu beste batzuek Euskal Herrira bueltatzeko sentitu duten gogo hori.

Lau-hortza

Igor Galarza
Intxausti
Kazetaria



Pronostikoa

Alearen atzera, webgunearen eki-magalera ekarri dut gaurkoz neure burua, itzalaren bila, ezagutzen nauenak ondo baitaki zer ari zaidan hurbiltzen: uda. Tira, uda denori ari zaigu ailegatzten, baina jakina da ni bezalako armairu albino bati kaltea besterik ez diola sorrarazten beroak. Gorputzera itsasten den kamiseta, kopetatik begirainoko bidaia egiten duen izerdi tanta, hondartza (orokorrean, beste barik)... anti-erotikoa, ezta?

Batek daki zelako uda datorrigun; etor liteke iazkoaren antzekoa, berrogeitaka gradu, hezetasuna, zerutik datorren ur tantarik ez... Edo gerta daiteke guztiz bestelakoa izatea, egun batean beroa, hurrengoan euria, hurrengoan espaloiak urtzen, hurrengoan Anboto zuri... Tira, zaila da pentsatzea bigarrena gertatuko denik, baina neguak eta udaberriak argi utzi digute hori: ezin dugu jakin zer datorren bihar.

Meteorologoez zail izango dute lanpostua mantentzea laster, hamar egunetik behin asmatuko baitute zer eguraldi egingo duen. Joan zen astean Anboton oso elkarriketa interesgarria irakurri nuen, bi meteorologori egin. Probabilitatean oinarritutako pronostikoak egiten dituztela zioten. Nik probabilitate bat aztertu dut udaberrian: jendeak bero eske eta euria denean kexaka jarraituko du. Ez gara ohar-tzen Euskal Herriaren iparraldean zortedunak garela. Altsa-sutik behera joatea besterik ez dugu ohar-tzeko uda apirilean sartu zela hegoaldean. Urtea hasten dugun bezala amaituko dut gaur testua: uda euri-tsua izan dezazuela guztiok, badugu horren beharra eta.

SAN ROKE BARRIA DURANGO

SALMENTA BULEGOA Astxiki kalea 1, Durango

Ludoteka

Gimnasioa

225.000€-tik aurrera+BEZ

Udazkenean obra hasiera

sukia 946 46 20 41
Zure etxean zaude. Estás en tu casa www.sukia.com

KALERATZE prezio bereziak